

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-Bilera: Erdialdea

DATA: 2017/11/9

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du garbiketa-sistema beste isilago batez ordeztea. Gaur egun erabiltzen diren haizagailuek eta garbitzeko makinek auzotarren atsedena eragozten duten ateratzen duten zaratagatik eta, horregatik, eskatu du garbiketa beranduago hasia.	Aurten, arazoari irtenbidea emateko helburuarekin, garbiketa-sistema elektrikoa erosi da.
Obrak	Fermín Calbetón 4. zk.ko auzotar batek eskatu du eraikinak dituen filtrazio-arazoak konpontzeko. Dioenez, Fermín Calbetón kaletik Txikitara doazen eskaileretan dute jatorria.	Aztertzen ari dira zein izan daitezkeen arrazoiak. Saneamendu-saretik ikuskatze bat egin behar da kamerarekin, ikusteko ea filtrazioa hortik datorren.
Zerbitzuak	Eskatu du edukiontziez kanpo lagatzen diren kartoiak jasotzeko, bereziki Untzaga inguruan.	Kartoiak egunean bi alditan jasotzen dira. Behin 14:00etatik aurrera eta beste behin 20:00etatik.
Zerbitzuak	Eskatu du arbolak inautea Untzagako dorre ostean.	Lan hau 2018ko otsailaren 7an egin zen.
Zerbitzuak	Auzokide batek kezka adierazi du Untzaga eta Fermín Calbetón arteko izkinan dagoen kioskoa dela-eta; bere ustez, kioskoa arriskuan dago autobusek bira hartzen dutenean. Proposatu du lekuz aldatzea.	Orain arte, ez da ikusi kioskoa arriskuan dagoela autobusek bira hartzen dutenean.
Hirigintza	Galdetu du ea noiz bota behar den Vildósolaneko txaleta.	Urtarrilean eraitsi zen.
Obrak	Auzotar batek eskatu du arrapala mekanikoa eraikitzea Ifarkaletik edo Txiriokaletik Errekatxura.	Ifarkalen edo Txiriokalen arrapala mekaniko bat jartzeak kostu handia dauka. Kale horien pendizak eta desnibelak, handiak izanik, ez dira hainbestearainokoak Eibarko beste auzo eta kale batzuekin alderatuta. Arrapalak egiteak inguruko komertzioen zama-lanak zailduko lituzke eta Ifarkalen aparkaleku-lerro bat kentzea ekarriko luke. Jarduera hori, beraz, ez da lehentasunzat jotzen.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-Bilera: Erdialdea

DATA: 2017/11/9

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Auzokide batek eskatu du uraren erreziboa kobratzeko araua aldatzea; izan ere, errentari batek ez badu ordaintzen, jabeari ordainarazten zaio errentari berriaren titulartasuna aldatzeko edo jabeak berak erabiltzeko.	Gipuzkoako Urak agentziaren ordenantza baten arabera, Gipuzkoako Udalekin adostutakoa, eta elkartearen ordezkariari kontsulta egin eta hala baieztatu ostean, zorra zerbitzuaren titularrari dagokio ordaintzea eta, ondorioz, errentariak, momentu horretan zerbitzuaren titularra denak, zorra izanez gero, titulartasuna aldatu aurretik honen ordainketa egin behar du jabeak. Ez badu ordaintzen, zorra herriko biztanleen artean ordaindu beharko da. Beste aukera bat ere badago: errentariarekin daukan kontratua bertan behera uztea jabeak eta, ondoren, berriro ere alta ematea zerbitzuari, tramite honek eskatzen dituen ordainketak egin ostean.
Zerbitzuak	Galdetu du ea edukiontzi marroiaren irekitzeko sistema alda daitekeen. Bere ustez, oso deserosoa da, batez ere euria ari duenean eta, gainera, txartela gerturatzeko, zabor-poltsari eta guardasolari eutsi behar zaie.	Mankomunitateari abisua eman ostean, jakinarazi du irekitzeko sistema errazten duen beste aukera batzuk aztertzen ari direla.
Alkatetza	Eskatu du Euskotrenekin kudeatzeko trenak Ardantza geltokitik pasatzean ateratzen duten zarata burrunbatsua.	Euskal Trenbide Sareari idatzi bat bidali zitzaion soinua ekiditeko panelak jartzeko eskaera eginez, batez ere, bihurgunea dagoen tokian, bertan sortzen delako zarata handiena, eta, bestela, trenbidea hezea mantendu dezala soinua murrizteko. Oraindik, ez dugu erantzunik jaso eta berriro ere eskatuko da.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-Bilera: Erdialdea

DATA: 2017/11/9

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du Isasiren eta Egogainen arteko etxeetara joaten diren usoak akabatzeko, fatxadetan zikinkeria handia eragiten dutelako.	Eraikin batean pausatzen diren usoak eliminatzeko ardura eraikinaren jabetzarena da. Ez da Udalaren eskumena. Hala ere, azpimarratu behar da urtero kanpaina bat egiten dela usoak erretiratzeko, eta normalean abuztuan egiten da. Nolanahi ere, abisua eman zitzaion Mankomunitateari eta ekainaren 16 eta 17an pasatu zen Egogaineko espaloia garbiketa egiteko.
Udaltzaingoa	Salatu du asteburu eta jaiegunetan, gauez, tabernetako ateak zabalik lagatzen direla eta zarata kanpora ateratzen dela. Bere ustez, akordio bat lortu beharko litzateke araututako bi ateak itxita egoteko.	Ez da ohikoa ateak zabalik egotea. Izan liteke, pertsonak sartu edo irteten direnean, une batean, bi ateak irekita egotea. Hala ere, kontrolatu egiten da.
Hirigintza	Kexu da uda garaian terrazen ordutegia luzatzen delako.	Ostalaritza Ordenantzak hainbat sentzibilitate batzen saiatzen da. Zorrotza izan behar da ordutegia; urratzeak detektatzen badira, jakinarazi udaltzaingoari.
Udaltzaingoa	Eskatu du tabernen eta terrazen ordutegia betearazteko.	Kontrolatu eta salatzen da ostalaritza-establezimenduak ixteko ordutegia.
Udaltzaingoa	Eskatu du betearazteko oinezkoen gutxieneko ibilbideak.	Beti bermatzen da oinezkoen pasabidea. Terraza batek pasabidea oztopatzen duela jakiten denean, hartu beharreko neurriak hartzen dira.
Udaltzaingoa	Auzotar batek eskatu du jaietan eta ekitaldietan zaratari buruzko araudia betearazteko. Dioenez, musika oso altu egoten da.	Neurketak kexatzen diren pertsonen logeletatik egin beharko lirakeke, zehapen-espeditente bat irekitzeko balioa izan zezaten.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-Bilera: Erdialdea

DATA: 2017/11/9

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Salatu du ez direla atsedeneko 6 orduak errespetatzen ostalaritza establezimenduetan.	Gai hau kontrolatzen saiatzen da.
Zerbitzuak	Kexu da Untzagan karpa gehiegi jartzen direlako, eta plaza-erabilera eragozten duelako.	Karpa garai zehatzetan jartzen da: Inauterietan, Euskal Jaietan, Egoaziaren bazkari solidarioarekin eta San Andrés jaietan. Kasu hauetan guztietan, karpa jartzen da hori delako modu bakarra gun e itxi eta estali bat sortzeko ekimen hauek, bai eguraldiagatik edo batzen den jende kopuruagatik, egin ahal izateko. Horregatik, Errebaleko plaza estalia eraikitzen denean, hauetako ekimen batzuk bertan egingo dira.
Zerbitzuak	Galdetu du ea zer irizpide erabiltzen diren Untzagan karpak jartzeko baimenak emateko.	Eskaera guztiak Zerbitzu saileko batzordetik pasatzen dira, alderdi guztietako ordezkariekin. Hala ere, karpa jartzen da Udalaren festen egitarauaren arabera horrela behar delako edo, beste elkarte batek antolatutako ekitaldi bat denean eta helburuak ondo justifikatuta daudenean, karpa jartzea beharrezkoa denean.
Udaltzaingoa	Eskatu du elementuren bat jartzea galtzadan, eragozteko San Andrés pasealekutik igarotzen diren ibilgailuak abiadura handian joatea.	Oinezkoen pasabide goratu bat jarri behar da San Andres Pasealekuan.
Udaltzaingoa	Galdetu du ea posible den oinezkoen pasabide bat jartzea Bidebarrieta 1 eta 6 zenbakien artean.	Bidebarrietan 1 eta 6 zenbakien arteko oinezkoen pasabide bat arriskutsua litzateke oinezkoentzat, Zuloagarrenetik kale horretara pasatzen diren ibilgailuengatik.